

Je suis Trambus

Azaro hastapenean gertatu zen Trambusaren aurkezpen ekitaldia.

Trambusa, azal dezadan, Baiona-Miarritze-Angelu hirigunean gaindi ibiliko den autobus sofistikatua da, garraio ohiturak irauli behar dituen, errazagoa bihurtuko diguna edonora autobusez joatea, autoz baino. Kostu ikaragarrikoa da, bistan dena, eta bi urte dira jada bideen moldatzeko obrak abiatuak dituztela. Ibilgailua bera Irizar enpresak egin da, ederra, elegantea, distiratsua, erakargarria.

Je suis Trambus. Hori zeraman saihe-tsean tatuatua. Beribilaren ingurua egini, bestaldean ere berdintsu. Barnera sartu eta banatu zitzaizkigun eskuorriak oro erdara garbi eta dotorean ziren, kanpoko aurkezpen afixa erraldoiak gisa berean. Haurrei kartulinazko maketatxoak banatu zizkieten, frantses hutsean. Izkribuetatik bakar batek ez zeraman euskaraz hitzik. Hitz bakarra ere ez. Nehon ez. Eta afera ez zen horretan gelditu, hautetsiak eta kargudunak mintzatu zirenean berdin segitu baitzuen kontuak. *Je suis Trambus. Atout maître des mobilités du Pays Basque.*

Trambusaren proiektua Euskal Elkargoak garatzen du. Elkargoa sortu zen 2017an. Hizkuntz politika eta euskararen inguruko artikulua Elkargoaren estatutuetan, 2018ko uda hastapenean bozkatu ziren. Pozik ginen. Eta sei hila-bete berantago hau errun digute. Nolz gerta liteke Trambusarena? Asmo berri bat, etorkizuneko, hainbat zerbitzuren lana dena eta holako aukera galtzea euskara ikusgarri egiteko? Itxurakeritako baizik ez balitz ere, ez parada baliatu izana euskara sartzeko hor?

Galdegin ondoan, lekuan berean erran zen "geroago" eginen dela. "Prototipoa" dela. Beste nonbait batek justifikatu du komunikazio kanpaina tarrapatzen egin zela, ez zela denbora-



Bea Salaberri

IRAKASLEA
@beatxo



Antton Olariaga

rik izan dena ontsa egiteko. Omen, ez da Elkargoaren kontua soilik. Dena den hautetsiak ez dira denak ados elebitasunarekin. Ez zela sosik aski. Bati bururatu zaio ez zela jenderik libre itzulpena egiteko.

Aski dut konda diezaguten ez dela sosik, ez dela denborarik gauzak egiteko azken urte osoa pasa dutenean kanpaina diseinatzeko, ez dela langilerik aski hizkuntza zerbitzuetan itzulpenen egiteko aldi berean jendea kontratatzen denean erregulariki lan-deialdien ikusteko tarterik nehorik ukan gabe. Akitua naiz goaitatzeaz, beste urte bat, alde litzatekeen beste hautetsi bat, euskaldunon gutxieneko errespetua lukeen komunikazioa ez geratzeaz. Lepotik gora ase naiz gutaz trufa daitezen. Eta sustut ahalke naiz. Aitortzen dut. Ahalke eta damu Elkargoa, hizkuntz politika publikoa eta holakoetan sines-tu izanaz. Pertsonalki ez badut militatu egituraren alde, proiektua gauza zedilako heina egin dut. Erran nahi baitu, esperantzak hazi, diskurtsoak garatzen utzi eta isildu. Geroago Elkargoak hizkuntz politika egokiago bat, osoago bat, zerbait hots, gara zezakeela sinetsi nuen, edo behintzat itxaropen zenbait ukan nuen.

Artikulu hau idatzi eta publikatzeko artean, *Euskaraldi* osoa iraganen da. Tarte horretan, ez da dudarik, hautetsi eta kargudun berek argazkitan agertzeko denbora atzemanen dutela, txapa papoan, beren buruak euskararen militante gisa aurkeztuz. Ez da dudarik etekina aterako diotela A-tik Z-ra herritarrek diseinatu eta gauzatuari. Kari honetara mugituko dira bai, segur, beste guzia zuri lezakeelakoan. Ez da azitia izan behar hori asmatzeko. Hori baita betikoa. Denborak aldatu omen dira, baina gutxieneko koherentzia garaietara oraindik ez dira heldu, hitzemanabetetzetik urrun. ■